



## GRABAZIO-ZERBITZUA

Erabiltzailearen eskuliburua  
Grabazio-zerbitzua





## Aurkibidea

1. Deskribapena	3
2. Funtzionamendua	3
3. Urrutiko agintea nola erabili	5
4. Graba daitezkeen programak	6
5. Grabazioak programatzea	8
6. Grabatzeko zenbat leku geratzen den kontsultatzea	9
7. Grabazioen kudeaketa	10
8. Nire grabazioak	11

## 1. Deskribapena

Euskaltelen TBko grabazio-zerbitzuak aukera ematen dizu TBko gogoko saioak grabatzeko. Behin grabatutakoan, nahi adina aldiz ikusi ahal izango dituzu edukiak zure HD deskodetzailean, grabatutako edukia erabilgarri duzun bitartean.

## 2. Funtzionamendua

Euskaltelen grabazio-zerbitzuak aurretik erabiliko zenuen beste edozein grabazio-zerbitzuz bezala funtzionatzen du. Bi aukera dituzu:

• Ikusten ari zaren emanaldia grabatzea, aurrerago ikusteko, aginteko REC tekla sakatzuz.



• Grabazioak programatzea, 'Programazio-gida'ren bidez (GIDA) edo '7 egun' aukeraren bidez: Horrelakoetan, bi bide dituzu grabatzeko:

❖ Emanaldi bat nabarmendu, eta REC tekla sakatu



❖ Emanaldi bat nabarmendu, eta OK tekla sakatu. Orduan, beste aukera batzuen artean (alarma jarri, kanala sintonizatu, itzuli...), grabatzeko aukera agertuko da.



## 2. Funtzionamendua

Zerbitzu honek baditu zenbait ezaugarri berezi beste grabazio-zerbitzu batzuetatik bereizten dutenak:

- Ezin dira grabatu emanaldi baten zatiak: emanaldiak osorik grabatzen dira edo ez dira grabatzen. Beraz:
  - Hasitako saio bat grabatzen hasten bazara, berdin dio noiz hasten zaren grabatzen, emanaldi osoa grabatuko baita.
  - Hasitako grabazio bat ezeztatzen duzunean, grabazio osoa galduko duzu. Ezin duzu gorde grabazioaren zati bat.
- Nahi adina programa graba ditzakezu aldi berean.
- Ezingo duzu aldatu ez grabazioaren hasiera-ordurik, ez amaiera-ordurik, ordu horiek EPGk ezartzen baititu (programazio elektronikoen gidak).

### 3. Urrutiko agintea nola erabili


Eskema honetan ikusten da urrutiko aginteko zer tekla erabil daitezkeen grabazioak egiteko:



*Konfigurazioko menuan sartzeko tekla da. Menu horretan, grabatzeko zenbat leku geratzen den ikus dezakezu.*



*PVR teklarekin, grabazioak kudea ditzakezu.*



*Grabatutako edukiak eteteko, berriz hasieratik jartzeko, aurreratzeko eta atzeratzeko teklak eta*



*REC tekla sakatuta, ikusten ari zaren programa graba dezakezu, edo grabazioak programatu gidatik edo '7 egun' aukeratik.*



*Gidan edo '7 egun' aukeran, emanaldi baten aukerak agertzen dira OK tekla sakatuta. Han ikus dezakezu emanaldi bat graba daitekeen ala ez.*


## 4. Graba daitezkeen programak

Ematen diren programa guztiak ezin dira grabatu. Programa bat graba daitekeen jakiteko, informazioaren botoia sakatzen duzunean, egiaztatu hodei baten ikonoa duela edukiari buruzko informazioan.

Aginteko informazio-botoia. Hau sakatu behar da jakiteko eduki bat graba daitekeen ala ez.



Hodei honek adierazten du edukia graba daitekeela



Kanal hauetako edukiak graba daitezke:

### TELESAILAK

FOX  
AXN  
AXN WHITE  
TNT  
FOX CRIME HD:  
SYFY  
CALLE13  
COSMO  
COMEDY CENTRAL

### HAURRENTZAKOAK

DISNEY JUNIOR  
DISNEY CHANNEL  
CLANTV  
DISNEY XD  
ETB3  
PANDA  
NICKELODEON

### ZINEMA

HOLLYWOOD  
TCM  
ACM  
XTREME  
SUNDANCE HD  
BUZZ



## 4. Graba daitezkeen programak

### **KIROLAK**

EUROSPORT HD  
SPORTMANIA HD  
TELEDEPORTE HD  
GARAGE TV

### **OROKORRA**

ETB1  
ETB2  
LA 1  
LA 2

### **LTD**

ANTENA 3  
TELE5  
CUATRO  
LA SEXTA  
FDF  
NOVA  
NEOX  
DIVINITY

### **DOKUMENTALAK**

NAT GEO WILD HD  
NAT GEO HD  
VIAJAR HD  
HISTORIA  
ODISEA HD  
A&E  
DISCOVERY  
DISCOVERY MAX  
IBERALIA  
CAZA TV  
COCINA  
DCASA




## 5. Grabazioak programatzea

Beheko irudian ikusten da zer aukera agertzen diren graba daitekeen eduki baten gainean urrutiko aginteko OK botoia sakatzean.

Lehen irudi honetan, '7 egun' gida ikusten da



Bigarren irudian, Programazio-gida ikusten da (urrutiko aginteko GUIA botoia sakatzean agertzen dena)





## 5. Grabazioak programatzea

Grabazio bat hasita dagoenean, ikono hau agertuko da emanaldian:




Grabazio bat programatuta dagoenean, ikono hau agertuko da emanaldian:



## 6. Grabatzeko zenbat leku geratzen den kontsultatzea

Sakatu aginteko giltza ingelesaren botoia. Agertzen diren aukeretan, hautatu 'HD deskodetzaileari buruzko informazioa' eta, gero, 'Ikusi egoera'. Pantaila bat agertuko da, non kontsultatu ahal izango baituzu ordu guztietatik zenbat geratzen diren libre grabatzeko.



## 7. Grabazioen kudeaketa

Urrutiko aginteko PVR botoia sakatuta sartzen da grabazioen kudeaketara.



'Nire grabazioak' aukeran ikus daitezke oraindik iraungi ez diren grabazio guztiak (ezabatu ez direnak). Menu honetatik erreproduzi eta ezaba ditzakezu grabazioak.



'Kudeatu' aukeran ikus daiteke zer grabazio egiten ari diren edo zein dauden programatuta datozen egunetarako. Grabazioak ordenatzeko eta ezeztatzeko aukera ere badago.



'Berria' eta 'Gomendatua' aukerak ezin dira erabili grabazio-zerbitzuarekin

## 8. Nire grabazioak

Irudi honetan, egindako grabazioak kudeatzeko zerbitzuaren adibide bat ikusten da. PVR tekla sakatuz sartzen da zerbitzu honetan.

Agertzen diren aukeretan, 'Nire grabazioak' sakatu behar da.



'Nire grabazioak' atalean, burututako grabazioen zerrenda agertuko da: izenburua, grabazioa noiz arte egongo den erabilgarri, grabazioa noiz egin zen eta zenbat irauten duen.

Hemendik, grabazioak erreproduzi, ordena eta ezaba ditzakezu.

